



ARRAZTALO

ARRAZTALO ELKARTEA

2019ko memoria eta 2020ko proiektua

2020ko urtarrilaren 2a

AURKIBIDEA

1	SARRERA	4
2	2019 URTEKO EKINTZEN AZALPENA	4
2.1	LAN ETA GIZARTE INTEGRAZIOA BARATZETAN	4
2.1.1	HELBURU OROKORRAK	4
2.1.2	2019KO IBILBIDEA	4
2.1.3	2020RAKO HELBURUAK	5
2.2	ENPLEGU ZENTRO BEREZIA	6
2.2.1	HELBURU OROKORRAK	6
2.2.2	2019RAKO LAN ILDOAK	6
2.2.3	2019KO IBILBIDEA	6
2.2.4	2020KO HELBURUAK	8
2.3	GAIXOTASUN PSIKIKOA DUTEN PERTSONEN ARRETARI BURUZKO AZTERKETA	8
2.3.1	HELBURU OROKORRAK	8
2.3.2	2019KO IBILBIDEA	8
2.3.3	2019KO IBILBIDEA	8
2.3.4	2020KO HELBURUAK	8
2.4	ESKUALDEKO OSASUN MENTALEKO MAHAIA	9
2.4.1	HELBURU OROKORRAK	9
2.4.2	2019KO IBILBIDEA	9
2.4.3	2020KO HELBURUA	9
2.5	BARATZAK ETA KONTSUMO TALDEA	9
2.5.1	HELBURU OROKORRAK	9
2.5.2	2019KO IBILBIDEA	10
2.5.3	2020KO HELBURUAK	10
2.6	IKASTETXEAK ETA BARATZETARA BISITAK	11
2.6.1	HELBURU OROKORRAK	11
2.6.2	2019RAKO LAN ILDOAK	11
2.6.3	2019KO IBILBIDEA	11
2.6.4	2020KO HELBURUAK	11
2.7	MATERIAL DIDAKTIKOA	11

2.7.1	HELBURU OROKORRAK	11
2.7.2	2019KO IBILBIDEA	12
2.7.3	2020KO HELBURUAK	12
2.8	FORU ALDUNDIAREKIN ELKARLANA	12
2.8.1	HELBURU OROKORRAK	12
2.8.2	2019KO IBILBIDEA	12
3	<u>DIRULAGUNTZAK</u>	13
4	<u>DIRU-KONTUAK</u>	14
4.1	BALANTZEA	14

1 SARRERA

Txosten honetan Arraztalo Elkarteak 2019an egin dituen ekintzen laburpena biltzen da. Urte hasierako helburuak, egindako lanak eta horien emaitzak zehazten dira. Gainera, diru-kontuen azalpen zehatza ematen da.

2 2019 URTEKO EKINTZEN AZALPENA

2.1 Lan eta gizarte integrazioa baratzetan

2.1.1 Helburu orokorrak

- Helburu nagusia, Oiartzungo gaixo psikikoen lan eta gizarte integrazioa lortzea da.
- Lan integrazioa bultzatzeko nekazaritza ekologikoan lanpostuak sortzea.
- Gaixotasuna duten pertonekin, senideekin, gizarte zerbitzuekin eta osasun arretako profesionalekin euren egoera egonkortzen eta hobetzen laguntzea.
- Gaixotasun psikiko duten pertsonen eta herritarren arteko harremanak bultzatzea eta sendotzea.

2.1.2 2019ko ibilbidea

2018-2019 ikasturtean, lan eta gizarte integrazioko programa ez atzera ez aurrerako egoera batean dago. 2010ean proiektua hasi zenetik, gaixotasun psikikoa duten pertonekin aurrerapausoak lortu dira, beraien bizi kalitatea hobetuz. Hori, lana eskainiz eta lan ingurune batean integratuz egin da. Aire librean eta eragile ezberdinekin elkarlanean aritzeak, isolamendu egoerak ekidin eta gaixotasunak dakartzan ondorioak gainditzen lagundu die.

Dena den, ia 10 urte pasa diren honetan, integrazio programan hutsune nabarmenak ikusi dira:

- Lanerako planteatu zen 4+1 eskemak (gaixotasun psikikoa duten 4 pertsona arduradun batekin) taldearen ardura duen pertsonarentzat gehiegizko karga dakar. Hasieratik lan produktiboa egitea planteatu zen (ez denbora-pasako aktibitateak), ondorioz arduradunak bi helburu bete behar ditu: gaixotasuna duten pertsonen garapenean laguntzea, lanbidea erakustea, harremantzen laguntzea eta abar, eta gainera baratza produktibo batzuk lortzea. Azken honekin lotuta, kontuan hartu behar da gaur egun Oiartzunen sakabanatuta dauden lau baratzatan lan egiten dugula. Askotan lantaldetan banatu behar izaten dira langileak eta baratza bakoitzean norbaitek gainbegiraketa egin behar du. Lan hau pertsona bakar batek egiteko, ardura eta esfortzu handia egin behar du. Gainkarga arindu nahian, azken

urtetan ardura elkarbanatzeko bigarren pertsona baten kontratazioa egin da eta arduradunak laguntza psikologikoa eduki du eguneroko gatazkak kudeatzen laguntzeko. Hala era, etorkizunerako, hasieran planteatu zen eskemaren azterketa egin beharko da.

- Gaixotasun psikikoa duten pertsonak lanaz gain beste mota bateko terapia/dinamikak behar dituzte. Lana egiteak, bere horretan onurak dakartza. Hala ere, gaixotasun psikikoaren ondorioak gainditzeko laguntza psikologikoa beharrezkoa da. Arraztalon laguntza psikologiko horren formatuaren inguruan zalantzak ditugu, talde terapiak edo bakarkakoak dagoeneko badaudelako. Arraztaloko langileek badute Errenteriako Osasun Mentaleko Zentrora edo Agifesera joateko aukera terapia egitera, beraz horrelako zerbait Arraztalon egitea bikoizketa dela uste dugu. Lan esparruan bertan gaitasun ezberdinak lantzeko dinamika baten beharra daukagu, eta ahaleginak egin diren arren (psikologoei galdetuz, dirulaguntzak eskatuz, EHUra laguntza eske joanez), ez da emaitzarik lortu.
- Langileak lan mundu arruntean integratu behar dira. Argi dago, langile batzuentzat Arraztaloko lanpostua betirako izan daitekeela, eskaintzen den ingurune babestutik kanpo ateratzea zaila delako. Baina beste batzuentzat, lan mundu arruntera pasatzeko erdibideko pauso bat besterik ez da izango. Gaur egun, ez dago baliabide nahikorik inguruko enpresetan lanpostu egokiak bilatu, langileak prestatu eta beraiekin lan mundu arruntera jauzia egiteko.

Epe motzera, Oarsoalderako Eusko Jaurlaritzak atera duen talka planari esker, beste hiru langile eta arduradun bat kontratatuko dira sei hilabetez. Honekin, lan karga arindu eta ardurak banatzea lortuko da.

Epe luzerako ordea, konponbidea Enplegu Zentro Bereziaren sorrera dela uste dugu (ikus 2.2 atala). Epe labur batean hau lortu ezean, Arraztaloren proiektua kolokan dagoela ikusten dugu. Ez sozialki ezta ekonomikoki ere proiektua ez baita bideragarria.

2.1.3 2020rako helburuak

2020an helburu nagusia Enplegu Zentro Berezia sortzea izango da, horregatik baratzetan trantsizio epealdi batean egongo gara. Trantsizio epe hori kudeatzea izango da lanetako bat. Berez, zentroa sortzeak eguneroko nekazaritza aktibitatean ez du eragin handirik izango, baina aukera berriak irekiko ditu integrazio programa hobetzeko. Besteak beste, Enplegu Zentro Berezian alderdi soziala landuko duen pertsona baten kontratazioa aurreikusten da, eta horrek langileen lan ibilbidearen garapena erraztuko du.

2.2 Enplegu Zentro Berezia

2.2.1 Helburu orokorrak

- Arraztaloren lan integrazio proiektua egonkortzeko Enplegu Zentro Berezia sortzea.
- Enplegu Zentro Bereziaren bitartez beste erakundeak inplikatzea.

2.2.2 2019rako lan ildoak

- Enplegu Zentro Bereziak partaide diren erakundeentzako zein helburu bete behar dituen zehaztea.
- Enplegu Zentro Bereziaren legedia atera bitarte, inguruko erakundeekin proposamena lantzen joatea.
- Enplegu Zentro Bereziaren forma juridikoa aztertzea, legelari baten laguntzaz.
- Oarsoaldea Garapen Agentziarekin plan ekonomiko-finantzieroa egitea.

2.2.3 2019ko ibilbidea

2018ko abenduan Eusko Jaurlaritzak Enplegu Zentro Berezien sorrerarako eta horiei emango zaizkien laguntzen kudeaketarako dekretuaren zirriborroa argitaratu zen. 2013tik 15 ekimen baino gehiago bultzatu dira Legebiltzarrean, bertako alderdi politikoen laguntzaz, gobernua dekretu hau argitaratu zezan. Gaur egun ezin da horrelako zentrorik sortu, Eusko Jaurlaritzak ez baitu horretarako legedirik eta Lanbidek ez baitaiki nola kudeatu.

2019an zehar, dekretu hau oinarri hartuta, eskualdeko udal ezberdinekin bilerak egin dira Enplegu Zentro Bereziaren euren parte hartzea proposatzeko. Arraztaloren helburua eskualdeko eragile ezberdinekin zentro hau sortzea da. Elkarlanaren bidez, gaixotasun psikikoa duten pertsonen arretan parte hartzen duten eragile guztien parte hartzea bilatu nahi da: osasun esparrua (Osakidetza), lan esparrua (Arraztalo) eta gizarte arretako esparrua (udalak eta Aldundia).

2018an egindako azterketaren (ikus 2.3 atala) ondorioetako bat honakoa izan zen: gaixotasun psikikoa duten pertsonen arretan elkarlan eta koordinazio handiagoa behar da. Hori lortzeko, Oarsoaldeko Osasun Mentaleko Mahaia sortzea proposatu zen. Enplegu Zentro Bereziaren proiektuak ere ildo berdina jarraitu behar duela uste dugu, hau da, Arraztalok bakarrik sortutako Enplegu Zentro Berezi batek ez du ezer ezberdina lortuko. Gaixotasun psikikoa duten pertsonen arretan parte hartzen duten eragile guztiek eduki beharko lukete zer esana zentro horretan.

2019ko azaroan, Eusko Jaurlaritzak Enplegu Zentro Berezien legedia argitaratu zuen. 2020ko urtarrilaren 1etatik Enplegu Zentro Bereziak inskribatu daitezke. Dekretua hartuta,

Arraztalok hausnarketa prozesua martxan jarri zuen 2020an zentroa inskribatu ahal izateko. Prozesu horretan honako pausoak aurreikusten dira:

1. Azterketa juridikoa
 - a. Enplegu Zentro Berezia bazkideak zein izan daitezkeen ikusi eta formula juridikoak proposatu. Helburu nagusia eskualdeko eragile eta erakundeekin elkarlanean sortzea da.
 - b. Enplegu Zentro Bereziaren langileria eskema zein izango den zehaztu. Enplegu Zentro Berezi batek dirulaguntza ezberdinak lor ditzake bere langileriaren osaketaren arabera.
2. Azterketa ekonomikoa
 - a. Alderdi juridikoa zehaztuta dagoela, Lanbidetik lortu ahal izango den finantziarioa zehaztu daiteke. Horrekin bideragarritasun ekonomikoaren plana egingo da.
 - b. Orain jasotzen diren dirulaguntzetan Enplegu Zentro Berezia sortzeak izango lukeen eragina aztertuko da.
3. Azterketa teknikoa
 - a. Arraztalok aktibitatea dagoeneko badueneguz, egun dagoen nekazaritzako aktibitatearen txostena egingo da.
4. Azterketa soziala
 - a. Enplegu Zentro Bereziak dakartzan aldaketak, Arraztalo Elkarteko kideen eta langileen artean elkarbanatuko dira. 2020an aldaketa hori egiteko adostasunak erabatekoa izan behar du.
 - b. Enplegu Zentro Bereziaren beharra inguruko eragileekin landuko da.

Azterketa juridikoa 2019ko abenduan jarri zen martxan eta emaitzak 2020ko hasieran aurkeztuko dira. Oiarzungo Udalarari hau jakinarazi zaio eta honek prozesu honetan parte hartzeko prestutasuna adierazi du.

Enplegu Zentro Berezia sortzearen helburuak hauek izango dira:

- Epe motzean, lan integrazio programari forma eman eta egonkortasuna lortzea. Aipatu diren gabeziak asetzea, inguruko eragileekin elkarlana bultzatuz eta azpiegitura egonkor bat lortuz.
- Epe ertainean, gaixotasun mentala duten pertsonak enplegu arrunteko merkatura bideratzea. Oarsoaldeko erakundeekin laneratzeko ibilbide pertsonalizatuetan beste tresna bat gehiago izatea.

2.2.4 2020ko helburuak

Hurrengo urterako helburu nagusia Enplegu Zentro Berezia (EZB) sortzea izango da. Aurreko atalean aipatu den prozesuko pausoak banan bana osatzen joango gara, EZB sendo bat sortzeko. Arraztaloren egoera ikusirik, izugarrizko garrantzia du pauso hau emateak, ondorioz, inguruko eragile guztien elkarlana bilatu behar da.

2020ko lehen seihilekoan, EZBa inskribatzea aurreikusten da.

2.3 Gaixotasun psikikoa duten pertsonen arretari buruzko azterketa

2.3.1 Helburu orokorrak

Oarsoaldean gaixotasun psikikoa duten pertsonen egoera zein den jakiteko azterketa soziologikoa egitea.

2.3.2 2019ko ibilbidea

- Proiektua bukatzeko dirulaguntzak lortzea.
- Azterketaren orain arteko emaitzen ebaluazioa egin eta hurrengo faseak prestatu.

2.3.3 2019ko ibilbidea

2018an azterketa bukatu eta honen aurkezpena egin zen. Behin diagnostikoa argitaratuta, Arraztalok eta Aldurak ekintza plana zehaztea planteatu zen. 2019an zehar ekintza planaren lanketarik ez da egin, Arraztalon beste lehentasun batzuk egon direlako.

Dena den, Aldurak azaroa eta abendurako Oarsoaldeako herrietan azterketaren aurkezpenak antolatu zituen. 2018an eskualdeko erakunde eta eragileei aurkeztu zitzairen azterketa eta orain herritarrei ireki nahi izan zaie honen ondorioak ezagutzeko aukera.

Eskualdeko udalei dirulaguntza ezberdinak eskatu zaizkie azterketaren azkeneko zatia ordaintzeko. Aurretik Oiartzungo Udalak bere ekarpena egin zuen eta 2019an zehar Lezo eta Errenteriako Udalen laguntza lortu da.

2.3.4 2020ko helburuak

Azterketaren emaitzekin ekintza plana egitea izango da 2020ko lan nagusia. Hala ere, aurretik, azterketaren eguneraketa egin behar da. Argitaratu zenean, 2016 eta 2017ko datuak erabili ziren, momentuan gehiago ez zegoelako. Orain berriz, erakunde ezberdinek datu berriak argitaratu dituzte, eta komeni litzateke hauek ere azterketan txertatzea.

Honez gain, EZBaren sorreran, azterketatik ateratako ondorioak eta lan ildoak txertatzen saiatuko gara. Aurretik aipatu den moduan, gaixotasun psikikoa duten pertsonen arretan parte hartzen duten eragileen elkarlana bultzatu behar da. Elkarlan hori ezinbestekoa dela uste dugu EZBaren eguneroko funtzionamenduan, bestela ez dugu aurrerapausorik lortuko gaixotasun mentala duten pertsonen lan integrazioan.

2.4 Eskualdeko Osasun Mentaleko mahaia

2.4.1 Helburu orokorrak

- Buru-osasunaren inguruan lanean ari garen eragile guztien bilgune izango den mahai edo kontseilua sortzea.
- Gaixotasun psikikoa duten pertsonen arretan dauden hutsuneak identifikatu eta ekintzen plangintza egitea.

2.4.2 2019ko ibilbidea

2018an egindako diagnostikoaren ondorioetako bat izan zen, gaixotasun psikikoa duten pertsonen arretan parte hartzen duten eragileen elkarlana hobetu behar dela. Elkarlan hori hobetu eta bultzatzeko, Eskualdeko Osasun Mentaleko mahai baten sorrera planteatu genuen Arraztalo eta Aldurak. Horrelako mahai edo batzordeak dagoeneko martxan daude Lillen eta Katalunian. Kataluniako esperientzia bizitu duten pertsonekin harreman zuzena dugu eta horien laguntzaz eskualdeko mahaia sortzea da etorkizuneko helburua.

2019an zehar foro ezberdinetan aukera hau planteatu den arren, ez da ahalegin berezirik egin mahaia sortzeko. Farapi aholkularitza bulegoarekin hitz egin da mahaia sortzeko prozesua gidatzeko gai izango liratekeen jakiteko, eta 2020ko dirulaguntzen eskaerak lan honetara bideratzea adostu da.

2.4.3 2020ko helburua

2020an helburua mahaia sortzeko metodologia egokia diseinatzea izango da. Dagoeneko badaude adibideak, baina bertako testuingurura egokitu behar dira. Horretarako, beharrezko dirulaguntzak lortzea eta prozesua martxan jartzea izango da helburua.

2.5 Baratzak eta kontsumo taldea

2.5.1 Helburu orokorrak

- Bertakoak, ekologikoak eta sasoiari-berriak diren barazkiak eta sagardoa merkaturatzea.

- Gaixotasun psikiko duten pertsonen gizarte integrazioan lagunduko duen herritar talde baten konpromezua lortzea.
- Inguruko ekoizleak kontsumo taldera erakartzea.

2.5.2 2019ko ibilbidea

2019an Arraztalok lau baratza (19000 m²) eta bi sagasti (12000 m²) kudeatzen jarraitu du. 2019ko lehen seihilekoan hobekuntzak egin dira baratzetan, batez ere ureztatze sistemak hobetzen.

Kontsumo taldeari dagokionean, partaide kopurua mantendu da. Gaur egun 32 familia daude bertan. Partaide kopurua igotzeko ahalegina egin den arren, publizitate kanpaina ezberdinen bidez, goia jo duela ikusten da. Herrian alternatiba ezberdinak sortu dira bertako elikagaiak erosteko eta kontsumo taldearen formatuak desabantaila nagusi batzuk ditu horien aurrean. Esate baterako, ordutegi finkoa du eta produktuak ezin dira aukera. Hori dela eta, beste salmenta bideak irekitzea erabaki zen orain dela urte batzuk. Besteak beste, Hautzaro Ikastolako jantokia barazkiz hornitzen da.

Ziurtagiri Ekologikoa lortu genuen 2016an hiru baratzatarako eta hauek, etengabeko azterketa prozesuan daude, ekoizpena ekologikoa dela ziurtatzeko. Makutsoko lursailaren kasuan, bilakaera prozesuan dago besteek hasieran egin zuten moduan.

Gure hazi propioak lortzeko egitasmoa martxan dago eta ahal den heinean, barazkiak gure hazietatik produzitzen ditugu. Honek abantaila nagusi bat du, haziak erosi behar ez izatea. Hala ere, ENEEK erakundeak gainbegiratzen duen ekoizpen ekologikoaren prozesuan, ez dago finkatuta hazi propioen jarraipena nola egin behar den.

2.5.3 2020ko helburuak

Beste ataletan bezala, EZBak eragina izango du baratzeen eta kontsumo taldearen kudeaketan. Gaur egun, ez dago baliabiderik beharrezkoak diren hobekuntzak egiteko. Barazkien salmentan eta kontsumo taldearen funtzionamenduan hobekuntzak proposatu izan dira. Adibidez, kontsumo taldearen banaketetan malgutasuna lortzea edo enpresetara zuzeneko salmenta egitea. Oartzunen industria poligono ugari daude eta bertako langileei zuzeneko banaketa egitea aukera ona dela ikusten da. Horretarako ordea denbora eta baliabide ekonomikoak behar dira. Behin EZBa sortuta, egoera egonkortu eta erronka berriei aurre egin nahi zaie.

2.6 Ikastetxeak eta barazetara bisitak

2.6.1 Helburu orokorrak

- Herriko haurren sentsibilizazioa lortzea, buruko gaixotasunen eta buruko osasunari dagokionean.
- Arraztalo Elkartearen ekintzen berri ematea, barazetan egiten den lana laburbilduz.
- Herriko haurrak nekazaritzara hurbiltzea.

2.6.2 2019rako lan ildoak

- Bisitak gaixotasun psikikoa duten pertsonen errealitatea ezagutarazteko erabili behar ditugu. Egia da Arraztaloren marka nekazaritzarekin lotzen dutela askok, baina alderdi soziala ere azaldu behar dugu. Honekin lotuta, dagoeneko ditugun bisiten irakasleekin ikastetxeetan egiten duten lanketa aztertzea izango da helburua, Arraztaloren inguruan ematen dituzten azalpenak zein diren jakiteko.
- Barazetako bisitak kontsumo taldearekin lotzeko, ikastetxeei bisiten ondoren oharra banatzeko aukera aztertuko dugu.

2.6.3 2019ko ibilbidea

Ikastetxeetatik bisitak jasotzen jarraitu dugu urtero moduan. Ez da aldaketarik izan eta ikasleek kontsumo taldea ezagutu dezaten ez dugu lanketa berezirik egin.

Ez dakigu zenbateraino ezagutzen duten ikasleek Arraztalok lan integrazioan egiten duen lana.

2.6.4 2020ko helburuak

2019ko lan ildoetan aipatu den moduan, bisitetan Arraztaloren lan soziala ere azaltzea da gure helburua. 2020an ez da aurreikusten lanketa berezirik honen inguruan beste lehentasunak jarri direlako.

2.7 Material didaktikoa

2.7.1 Helburu orokorrak

Material didaktikoaren egitasmoaren helburuak honakoak dira:

- Buruko Osasunari eta gaixotasun psikikoei buruzko oinarrizko ezagutzak ikastetxeetan zabaltzea.
- Irakasle eta gurasoei hurrekin buruko osasuna lantzeko euskarri bat ematea.

- Barazetako bisitei jarraipen bat ematea ikaste programan buruko osasunari buruzko ezagutzak txertatuz.

2.7.2 2019ko ibilbidea

2019an Elizalde Herri Eskolan guk sortutako material didaktikoa erabiltzen hasi dira. Hasiera batean programa oso baten moduan pentsatu zen arren, ikastetxeetan hori osotasunean txertatzeko zailtasunak daudela ikusi da. Hala ere, Elizalde Herri Eskolan materiala pixkanaka txertatzeko aukera ikusi dute eta erabiltzen hasi dira.

Prozesu horretan Arraztalok beharrezkoa duten guztian lagunduko du.

2.7.3 2020ko helburuak

Ekintza honi dagokionean, 2020rako ez da lan berririk aurreikusten. Unitate didaktikoak erabilgarri daude gure webgunean eta interesa azaltzen duenari lagunduko diogu horiek erabil ditzaten.

2.8 Foru Aldundiarekin Elkarlana

2.8.1 Helburu orokorrak

- Foru Aldundiarekin elkarlan egonkorra lortzea

2.8.2 2019ko ibilbidea

2019an ohiko dirulaguntzak eskatu zaizkio Aldundiari. Horrez gain, bilera bat izan zen Gizarte Politika saileko bi teknikarirekin, beste behin gure proiektua azaldu eta elkarlanerako bideak aztertzeko. Hasiera batean hitzarmen baten aukera aipatu zuten arren, ondoren hitzarmen hori ez da gauzatu. Azkeneko urtetan ondorioztatu dugun moduan, Aldundiarekin ezin da elkarlanik eduki eta dirulaguntza deialdietan parte hartzea besterik ez dago.

2019an dirulaguntza deialdiaren ebazpena asko atzeratu da, legezko epea abuztuan izan arren, urrian atera baitzen ebazpena. Horrek diru-kontuetan eragina izan du, urte bukaeran espero baino diru sarrera gutxiago izan baitira.

3 DIRULAGUNTZAK

Jarraian, Arraztalok aurrean eskatu edo lortu dituen dirulaguntzen laburpena ikus daiteke:

Diru-laguntza	Kopurua	Helburua	Onartua	Oharra
Oiartzungo Udala	53.000 €	Lan integrazioa baratzetan	Bai	Hitzarmen bidezko dirulaguntza.
Kutxa Fundazioa	12.600 €	Lan integrazio programan laguntzeko	Bai	
Eusko Jaurlaritza	3.099,57 €	Zigilu Ekologikoaren programan parte hartzeagatik	Bai	
Foru Aldundia	3.312,84 € (2019) 1.982,10 € (2020)	Ekoizpen ekologikoan egoteagatik laguntza	Bai	
Foru Aldundia	7500 €	Baratzetako integrazio programari laguntzeko	Bai	15.000€ eskatuak
Foru Aldundia	800 €	Material informatikoa erosteko	Bai	1.000€ eskatuak

4 DIRU-KONTUAK

4.1 Balantzea

2019 SARRERAK	
Salmentak	
Kontsumo Taldea	19.374,25 €
Merkataritza	1.521,68 €
Diru laguntzak	
Udala	53.000,00 €
Foru Aldundia	13.594,94 €
Eusko Jaurlaritza	3.599,67 €
Bankuak	15.800,00 €
Maileguak	
Maileguak	6.000,00 €
Beste	
	3.067,22 €
Guztira	115.957,76 €

2019 GASTUAK	
Langileria	
Soldatak	63.277,02 €
Gizarte Segurantza	26.857,09 €
IRPF	4.145,47 €
Funtzionamendu gastuak	
Baratzak	10.407,70 €
Aseguruak	1.626,00 €
Ura	235,89 €
Argindarra	74,21 €
Asesoria	1.649,23 €
Hondakinak	165,66 €
Komisioak banketxeak	69,83 €
Beste	1.136,66 €
Inbertsioak	
Baratzetan inbertsioak	0,00 €
Amortizazioa	
Maileguen itzulketa	0,00 €
Sentsibilizazio ekintzak	
Sentsibilizazioa	12.152,14 €
Guztira	121.796,90 €

BALANTZEA	
2019-01-01	18.381,38 €
Balantzea	-5.839,14 €
2019-11-30	12.542,24 €